

BURDINBIDEAREN EUSKAL MUSEOAK LURRUN TRENEN 4 ZIRKULAZIO ESKAINIKO DITU MAIATZAREN 1ETIK 5ERA

Eusko Jaurlaritzaren esku dagoen Euskotren Sozietate Publikoaren Burdinbidearen Euskal Museoak lurruntrenen 4 zirkulazio eskainiko ditu maiatzaren 1etik 5era.

Tren horiek irteera ordutegi hau izango dute Museotik (Azpeitia) Lasarantz:

- Asteazkena, maiatzak 1: 12:30ean.
- Larunbata, maiatzak 4: 12:30ean eta 18:00etan.
- Igandea, maiatzak 5: 12:30ean.

Museoko instalazioen irekiera ordutegia ondorengoa da:

- Asteartetik ostiralera lanegunetan: 10:00etatik 13:30era; eta 15:00etatik 18:30era.
- Larunbatak: 10:30etik 14:00etara; eta 16:00etatik 19:30era.
- Igandeak eta jaiegunak (astelehenak izan ezik): 10:30etik 14:00etara.

Burdinbidearen Euskal Museoak Europako tren bildumarik hoberenetariko bat dauka, mota askotako ibilgailuekin: lurrunezko, diesel eta elektriko tren-makinak; automotoreak eta bagoi mota desberdinak. Era berean, Museoak Euskadiko makina-tresna multzorik osatuena eskaintzen du, Urolako Trenbidearen antzinako tailer mekanikoaren bidez. Horrez gain, XIX. mende bukaeratik trenbidean erabilitako uniformeen erakusketa dago eta baita munduko trenbide erlojuen bildumarik hoberenetarikoa ere.

Jendearentzako informazioa

- Burdinbidearen Euskal Museoaren helbidea: Julián Elorza, 8 kalea (20730 AZPEITIA-GIPUZKOA).
- Informazio telefonoa: 943 15 06 77
- Faxa: 943 15 07 46
- Helbide elektronikoa: museoa@euskotren.eus
- Web gunea: www.euskotren.eus